



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urtarrilaren 14a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatuei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa. Bertan behera utzitako galdera (12. or.).
- Galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian. Bertan behera utzitako galdera (13. or.).
- Galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa. Bertan behera utzitako galdera (13. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lan-taldea, Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertzea. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak (14. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2010. urterako ordutegi ofiziala (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Foru lege honen helburua da Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako nekazaritzako elikagaien produkzioa eta salmenta zuzena arautzea eta sustatzea.”

Zioak: gure ustez, salmenta zuzena ez dago lotuta soilik artisau-langintzara, ezpada produktua, jatorriz, nekazaritzako edo/eta abeltzaintzako ustiatzei batekoa izateari.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 1. artikuluari 5. artikulua gehitzea proposatzen dugu.

Zioak: lege testua hobetu egiten du gure ustez.

4. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“4. artikulua. Definizioak

Nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena: Nekazaritzako produktuak manipulatu, eraldatu eta saltzeko jarduera, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatzeien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako ustiatzeiek eginkoa, ustiatze horietan beretan soilik lortutako lehengaietatik abiatuta.

Salmenta zuzena: Ekoizleak azken kontsumitzaileari elikagaiak zuzenean hornitzea dakarren merkataritzako jarduera, nekazaritzako ustiatzeian berean, merkatuetan edo azoketan egina.

Txikizkako merkataritza edo salmenta: elikagaien manipulazioa edo eraldaketa eta elikagaiak salmenta lekuan biltegitratzea edo azken kontsumitzaile hornitzea; ondokoak sartzen dira hor: banaketa-terminalak, talde-sukaldaritzako jarduerak, enpresa-jantokiak, erakundeetako sukaldaritzazerbitzuak, jatetxeak eta gisako elikagai-zerbitzuak, dendan, supermerkatuetako banaketa-zentroak eta handizkako saltokiak.

Lehen mailako produktuak: lehen mailako produktuen ekoizpena, hazkuntza edo laborantza, ondokoak barne: gizentzeko animalien hazkuntza, jeztea eta uzta, akabatu aurretik. Orobat sartuko dira ehiza eta arrantza eta basoko produktuen bilketa.”

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Nekazaritza-ko eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena da:" jarri ordeaz ondokoa jarriko du: "Nekazaritza-ko eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako salmenta zuzena da:"

Zioak: ustiatetik salmenta artisau-ekoizpena baino kontzeptu zabalagoa da, eta bi alderdiak jasotzen ditu; alde batetik, salmenta zuzena, eta, beste alde batetik, produktuak ustiatetik berean manipulatzeko eta eraldatzeko.

**5. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****5. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Legeko 5. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: gure ustez, artikulua honek legearen xedeari dagokio, eta artikulua edukia hobeki dago legearen 1. artikuluan. Hortaz, artikulua kentzeko zuzenketarekin batera beste bat aurkeztu dugu, artikulua honen edukia 1. artikuluari gehitzeko.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

"5. artikulua. Helburuak.

- Nekazaritza-ko egiturak hobetzea, nekazaritza-tzatik bizi diren pertsonentzat nekazaritza-errenta duinak eta kontsumitzaileentzat prezio bidezkoak lortzeko.

- Nekazaritza-ko edo elikagaien ustiatetik edo enpresa bideragarriak eta jasagarriak sortzea eta sustatzea.

- Ziurtatzea nekazaritza-ko ustiatetik jarraipena, landa ingurune-ko garapen ekonomikoaren oinarritzeko tresna baitira, eta tokiko baliabideei lotutako dauden sistemak mantentzea, ahalik eta per-

tsona gehienek iraun dezaten familia-nekazaritzaren esparruan.

- Nekazaritza-ko ustiatetik balio erantsi gehigarri bat lortzeko aukera ematea.

- Enplegua sortzen laguntza, nekazaritza-ko dimentsio fisikorik eduki behar gabe.

- Produktu "berezituen" aukera bat sortzea, haien kalitateari eta osasungarritasunari begira.

- Merkaturatze-zirkuitu laburrak bultzatzea"

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

**6. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****7. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondokoa gehitzea proposatzen da artikulua lehen lerro-kadan:

"Nekazaritza-ko eta abeltzaintza-ko ustiatetik titularrek ondoko baldintzak bete beharko dituzte bere produktuak eraldatu, egin eta zuzenean saldu nahi badituzte:"

Zioak: lege testua hobetu egiten du gure ustez.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 2. idatz-zatia kentzea. Ondokoa dio: "Nagusiki nekazari izatea, Nafarroako Nekazaritza-ko eta Abeltzaintza-ko Ustiatetik Erregistroaren arabera, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izan da ere:"

Zioak: gure ustez, baldintza horrek asko mugatzen du landa-munduko dibertsifikazioa. Gaur egun, nekazaritza-ko ustiatetik titularrek nekazaritza-ko bestelako dirusarrerak sor ditzakete, ezertan ere eragotzi gabe euren ustiatetikako produktuen salmenta zuzena.

7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 7. artikuluko 1. idatz-zatia honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“Identifikazioaren, elikagaien segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak bete beharko dituzte nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi-en titularrek, baldin eta salmenta zuzenari edo euren produktuen eraldaketari lotutako ustiategi-en parte izan nahi badute”

Zioak: ustiatetik salmenta artisau-ekoizpena baino kontzeptu zabalagoa da, eta bi alderdiak jasotzen ditu; alde batetik, salmenta zuzena, eta, beste alde batetik, produktuak ustiategiaren berean manipulatzeko eta eraldatzeko.

10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“Ekoizleek hiru baimen-araubideren artean hautatu ahalko dute, osasun eta erregelamendu arloan:

1. Salmenta zuzena: egoera horretan daude ustiategiaren titularrak, baldin eta bere produktua azken kontsumitzaileari saltzen badiote, bai ustiategiaren berean bai Foru Komunitateko nahiz autonomia erkidego mugakideetako merkatu eta azoketan.

2. Produktuaren zati baten salmenta zuzena azken kontsumitzaileari eta beste zati batena bitartekari baten bidez egitea, eta horretarako osasun baimena behar izatea.

3. Produktu osoaren salmena zuzena, Europar Batasunean saltzeko osasun baimenarekin”

Zioak: lege testua hobetu egiten du gure ustez.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

10. artikulua. Baimenen araubidea.

Ekoizle-eraldatzaileek hiru baimen-araubideren artean hautatu ahalko dute:

- A «Salmenta zuzena»: beren ekoizpen osoa kontsumitzaileari zuzenean saltzen diotenak, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategiaren bertan, azoketan edo merkatuetan.

- B «Osasun-erregistrotik salbuestea»: zati bat salmenta zuzenaren bidez egiten dute, eta beste bat txikizkako merkatariaren bidez, 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

- «Osasun-erregistroa»: Europar Batasunean saltzeko osasun-baimena, kopuru-mugarik gabe, 13. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“11. artikulua. Salmenta zuzena

Salmenta zuzena egiten duten nekazaritzako ustiategiaren lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, araudi indardunari jarraikiz.

- Ziurtatzea higienaren printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla.

- Abian jartzea arrisku eta kontrol gune erabakigarri azterketari (APPCC) buruzko sistema bat, edo, kasua bada, higie-jardunbide egokiaren gida bat.

- Ekoizpen osoa merkaturatuko dute azken kontsumitzaileari zuzenean salduta, azoketan eta ekoizpen zentroaren gertuko ingurunean (853/2004 (EE) Erregelamenduko 1.5.a) artikulua).

- Ez dago salmentako kopuru-mugarik.

Salmenta zuzeneko ustiategi bakoitzak bere jarduerari buruzko aitortpen bat eginen du, non ondokoak jasoko baitira:

- Nekazaritzako ustiategiaren identifikazioa.
- Nekazaritzako ustiategi mota.
- Saltokiak (ustiategia, azokak, merkatuak, kamioneta, salmenta makina, etxex etxeko salmenta...).
- Jarduera mota eta bolumena.
- Enplegatuen eraldaketa prozesuak”

Zioak: zuzenketa dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposamenerako helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiak ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez ere 10. artikuluko bigarren idatz-zatian jasotzen den salmenta zuzena egiteko:

Gainontzekoak berdin jarraituko du.

Zioak: lege testua hobetu egiten du gure ustez.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua, “Osasun baimena,” kentzea.

Zioak: gure ustez, artikuluari izenburu hori jar-tzeak nahasbidea eragin dezake.

15. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“12. artikulua. Osasun-erregistrotik salbuestea.

Osasun erregistrotik salbuetsita dauden neka-zaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisauek ezaugarri hauek izanen dituzte:

- Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, araudi indar-dunari jarraikiz.

- Ziurtatzea higienaren printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen dire-la.

- Abian jartzea arrisku eta kontrol gune eraba-kigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat.

- Txikizkako merkataritzako establezimenduei egitea salmentaren zati bat, 853/2004 (EE) Erregelamenduko 1.5.b)ii) artikuluko baldintzak errespetatuz.

1. Txikizkako merkataritzako beste establezi-mendu batzuei saldutako produktuen kategoria bakoitzeko gehieneko zenbatekoa ez izatea ondo-ko taulan zehaztutako kopurua baino handiagoa:

PRODUKTUAK	GEHIENEO KOPURUA	
	Beste establezimendu bati eginiko salmentak % 30 edo gutxiago egiten badu	Beste establezimendu bati eginiko salmentak % 30tik gora egiten badu
Esne termikoki tratatua	800 l/asteko	250 l/asteko
Esnekiak eta deribatuak	250 kg/asteko	100 kg/asteko
Haragi fresko xehetuak	800 k/asteko	250 k/asteko
Haragiaz prestatutako produktuak	250 k/asteko	100 k/asteko
Produktu horietan oinarrituta prestatutako bazkariak	400 anoa edo bazkari	150 anoa edo bazkari
Arrautzak	500 dozena/asteko	200 dozena/asteko
Landare jatorriko produktuak eta ezta	250 k/asteko	100 k/asteko

2. Saldutako kopuruak ez du eginen produkzio osoaren % 30 baino gehiago kategoria bakoitzean.

3. Nekazaritzako ustiategia eta txikizkako salmentako saltokiak Nafarroan egonen dira.

Halere, baldin eta, 1. idatz-zatian adierazten den gisan, hornitutako kopuruak ez badu taulako hirugarren zutabean zehaztutako kopurua gainditzen produktuen kategoria bakoitzean, ez da aplikatuko 2. idatz-zatian ezarritako % 30eko muga.

Osasun-erregistrotik salbuetsita egon beharreko ustiategi bakoitzak bere jarduerari buruzko aitortpen bat eginen du, non ondokoak jasoko baitira:

- Nekazaritzako ustiategiaren identifikazioa.
- Ustiategi mota.
- Jarduera mota eta bolumena.
- Txikizkako salmentako merkataritzako establezimenduetako salmenta-bolumena.
- Txikizkako salmentako merkataritzako establezimenduen zerrenda.
- Enplegatuen eraldaketa prozesuak?

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 13. artikuluko idazpurua, "Osasun baimena," kentzea.

Zioak: gure ustez, artikuluari izenburu hori jar-tzeak nahasbidea eragin dezake.

17. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gel-dituko litzateke testua:

"13. artikulua. Osasun-erregistroa.

Osasun erregistroa duten nekazaritzako ustia-tegiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien arti-sau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

- Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, araudi indar-dunari jarraikiz.
- Ziurtatzea higienearen printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen dire-la.
- Abian jartzea arrisku eta kontrol gune eraba-kigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat.
- Osasun-erregistroko zenbakia izatea.
- Produktuak Europar Batasunean merkaturatu ahal izatea.

Osasun-erregistroa izan behar duen ustiategi bakoitzak eskabide bat eginen du, dagoen eredu-aren arabera."

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

18. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lehen lerrokadako testuaren ordean honako hau proposatzen da:

“Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiak ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez ere 10. artikuluko lehenengo idatz-zatian jasotzen den salmenta zuzena egiteko.”

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****19. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Praktika egokien gidak sortuko dira, Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako produktuen salmenta zuzenari buruzko Legearen aplikazioari begira.”

Zioak: Gure ustez, praktika egokien gidak ez dira legearen alderdi bakarrera mugatu behar.

20. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“15. artikulua. Higiene-jardunbide egokien gidak.

Higiene-jardunbide egokien gidak egiten dira nekazaritzako ustiategiarekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek eraldatutako produktu gutzietarako.

I. eranskinean zehazten da enpresa horiek zer jarduera egin ditzaketen.”

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

21. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. eranskina gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. eranskina

1. Fruituen eta barazkien zukuak, marmeladak eta kontserbak egitea.

2. Sagardoa, ardoa, likoreak eta pattarrak egitea.

3. Haragizko produktuak egitea.

4. Esnekiak egitea.

5. Eztia eta deribatuak manipulatu eta egitea.

6. Landare-espezieak manipulatzeko, elikaduran erabiltzeko infusioetarako eta elikaduran erabiltzeko eragile aromatiko gisa.

7. Oliba-olio birjina estra egitea.

8. Arrautzen salmenta.”

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

22. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

16. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“16. artikulua. Nekazaritzako ustiategiari lotutako nekazaritzako elikagaien artisau-batzordea.

Nekazaritzako ustiategiari lotutako nekazaritzako elikagaien artisau-batzordea sortu da. Batzordearen helburu nagusiak izanen dira Nafarroan nekazaritzako ustiategiarekin lotura duten elikagaien artisautzarekin lotura duen oro aztertu eta sustatzea eta proposamenak egitea.”

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposameneko helburuen bete-tzea, eta garatzen laguntzen du.

XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, lehena, gehitzeko zuzenketa.

“Nafarroako Gobernuak, hiru hilabeteko epean, erregelamendu bidez arautuko ditu, aplikatzekoa den araudiarekin bat eta, zehazki, Europako 852/2004, 853/2004 Erregelamenduekin eta horiek garatzen dituzten araeuekin bat, nekazaritzako elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloko arriskuak kontrolatzeko sistemak eta gainontzeko araudi aplikagarria, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiari lotutako nekazaritzako produktuen salmenta zuzenerako, lege honetan ezarritakoarekin bat.”

Zioak: Gure ustez, Gobernuak erregelamendu bidez arautu behar ditu zenbait alderdi.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Zioen azalpena

ekoizpen zentroetan eraldaketak egitea oso errotuta dago betidanik Nafarroan, eta goranzko joera duen jarduera da; izan ere, landa eremueta-ko familiek, batez ere nekazariak eta abeltzainek, beren errentak dibertsifikatzeko eta osatzeko beharra izaten dute.

Beharrezkoa da nekazaritzako ustiategietan egiten diren nekazaritzako elikagaien arloko ekoizpenak arautzea, araudi horrek ukitzen dituen enpresak zehaztea eta beharrezkoak diren baldintzak ezartzea enpresa ekoizle-eraldatzailea izan ahal izateko, hori ekoizle-eraldatzaileen eta kontsumitzaileen mesederako izanen baita.

Bai Europar Batasunaren araudi berriak bai eta elikagaien kontrol ofizialak garatzeko berariazko arauak ezartzen dituzten erregelamendu europarrak ere autokontrola eta arriskuaren analisisa egin beharra aurreikusten dute, beste printzipio eta

betebehar batzuen artean, elikagai enpresen operadoreentzat. Aipatu den Europar Batasunaren araudi berria ondokoetan oinarrituta dago: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko urtarrilaren 28an emandako 178/2002 (EE) Erregelamendua, elikagaiei buruzko legeen printzipio eta betekizun orokorrak ezarri zituena, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak hori garatzeko eman duten apirilaren 29ko 852/2004 (EE) Erregelamendua, elikagaien higieneari buruzkoa, eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako apirilaren 29ko 853/2004 Erregelamendua, animalia jatorriko elikagaien higienarako berariazko arauak ezarri zituena.

852/2004 Erregelamendua ez zaie aplikatzen ekoizleek azken kontsumitzaileari zuzenean saldu-tako lehen mailako produktuen kopuru txikiei edo azken kontsumitzailea zuzenean hornitzeko txikizkako saltokiei.

Oro har, kopuru txikiaren kontzeptuak zabala beharko luke izan; zabala, hain zuzen ere, ondo-koak ahalbidetzeko:

- Nekazariak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea lehen mailako produktuak (barazkiak, fruitak, arrautzak eta abar), esate baterako nekazaritzako ustiategietako salmenak zuzenak edo tokiko merkatuetako salmentak txikizkako saltokiei, azken kontsumitzaileari edo tokiko jatetxeei zuzenean saltzeko.

852/2004 Erregelamenduaren (EE) 1. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, estatu kideei dagokie zehatzago definitzea, egoeraren arabera, kopuru txikiak zer diren, bai eta nork bere nazioko zuzenbidearen arabera ezartzea elikagaien segurtasuna ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak ere (arriskuan oinarritutako ikuspegia).

Lehen mailako produktuak ustiategian eralda daitezke, esate baterako, esne gordina gazta bihurtzean edo frutatik zukua ateratzean. Lan horiek ez dira sartzen lehen mailako produkzio gisa deskribatutako jardueretan, eta, hortaz, 852/2004 Erregelamenduko II. eranskineko osasun-higieneko baldintzak bete behar dituzte, eta, animalia jatorriko elikagaiei dagokienez, 853/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritakoak.

853/2004 (EE) Erregelamenduaren aplikazio eremutik salbuesten da txikizkako salmenta; alegia, elikagaien manipulazioa edo/eta eraldaketa eta elikagaiak salmenta lekuan biltegiatzea edo azken kontsumitzailea hornitzea. Hau da, gazta fabrikatzen denean eta ustiategi edo tokiko merkatu batean azken kontsumitzaileei osorik saltzen zaienean (esate baterako, asteroko merkatuan, ekoizleen merkatuan eta abar), 852/2004 (EE)

Erregelamenduan ezarritako baldintzei, zehazki II. eranskinekoei, jarraikiz egin daitezke jarduera horiek, baina ez dituzte zertan bete 853/2004 (EE) Erregelamenduko baldintzak, salbu eta esne gordinari buruzkoak. Egoki denean, berriz, Estatu kideetako nazio legedian ezarritako neurriak betetzen direla ziurtatu beharko da, 853/2004 (EE) Erregelamenduko 1.5.c) artikularekin bat.

Halere, 853/2004 (EE) Erregelamendua txikizkako salmentari aplikatuko zaio baldin eta xedea bada animala jatorriko elikagaiak saltzea beste establezimendu bati. Hona salbuespenak:

i) operazioak biltegitratzea edo garraiatzea ez beste izatea; kasu horietan, ordea, III. eranskinean ezartzen diren tenperatura-betekizun berariazkoak aplikatuko dira; edo, bestela

ii) txikizkako salmentako establezimenduak txikizkako salmentako beste establezimendu batzuei soilik egitea animala jatorriko elikagaien hornidura, eta, nazio legeriarekin bat, hornidura hori jarduera marjinala, lokalizatua eta murriztua izatea, kasu horietan baizik ez baita aplikatzen 852/2004 (EE) Erregelamendua. Hornidura hori establezimenduen jardueraren zati bat baizik ezin da izan; xede-establezimenduek inguruan egon beharko dute, eta hornidurak produktu eta establezimendu jakin batzuk baizik ezin ditu hartu.

Estatu kideek, ustiategiko eraldaketa ahalbidetze aldera edo produkzio-bide usadiozkoak zaintze aldera, nazio mailako neurriak hartu ahalko dituzte, azpiegituren arloko betekizunak egokitzeko 852/2004 (EE) Erregelamenduko 13. artikuluan eta 853/2004 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan horren kariatara ezarritako prozedurarekin bat, baldin eta produkzio-bide usadiozkoak ezin badira erregelamenduan ezarritako betekizunei jarraikiz baliatu.

853/2004 (EE) Erregelamenduko III. eranskina betekizunak ezartzen dizkien animala jatorriko produktuak eskuztatzen dituzten establezimenduek osasun-erregistro edo –baimena izan behar dute, salbu eta ondokoetara soilik dedikatzen direnek: lehen mailako produkzioa, garraio-operazioak, kontrolpeko tenperatura batean biltegitratu beharreko datuen biltegitratzea eta 1. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letrari jarraikiz Erregelamendua aplikatzen zaienez bestelako txikizkako salmenta-operazioak.

Txikizkako salmenta (azken kontsumitzaileari animala jatorriko elikagaiak zuzenean saldu edo hornitzea) ez denez sartzen 853/2004 (EE) Erregelamenduaren aplikazio esparruan, ez da beharrezkoa, erregelamendu horren arabera, txikizkako salmentako establezimenduen baimena.

853/2004 (EE) Erregelamenduak aplikazio eremutik salbuesten du txikizkako salmenta; alegia, elikagaien manipulazioa edo/eta eraldaketa eta elikagaiak salmenta lekuan biltegitratzea. Hortaz, gazta txikizkako saltoki batean fabrikatu eta saltzen den kasuetan (adibidez, ustiategian), 852/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritako betekizunekin bat egin daitezke jarduera horiek, nekazaritzako elikagaien enpresaren erregistroa behar baitute, baina ez osasun-erregistroa.

Arau horiek aplikatzean, elikagai-establezimenduek neurri zehatzak hartu behar dituzte, produkzioaren, eraldaketaren, biltegitratzearen eta banaketaren faseetan arriskuak kontrolatzeko eta elikagaien segurtasuna ziurtatzeko, elikagaien segurtasunaren eta higienearen arloko betekizun orokorrak beteta.

852/2004 (EE) Erregelamenduak ezartzen duenez, elikagai-establezimenduetako operadorek higieneari buruzko araudian Arriskuak eta Kontrol Gune Kritikoak Aztertzearen (AKGKA) printzipioetan oinarritutako prozedurak taxutu eta aplikatu behar dituzte. Arau horretako 5. artikulua, ordea, AKGKA programak malgutasunez ezartzeko aukera ematen du, egoera guztietan aplikada dadin, baita elikagai-establezimendu txikietan ere, operadore horiei uzten baitie AKGKA programak eta autokontrol sistemak ezartzeko betekizunak prozedura bakunagoen bidez betetzea, gisako eragingarritasuna baitute, kasuan kasuko sektore berariazkoarentzako egokiak diren higie-jardunbide egokien gidetan oinarrituta.

Lege honek aukera emanen die nekazaritzako ustiategi txiki eta ertainei –Nafarroako gehienak halakoak dira– beren jarduera nagusiaz gain beste jarduera osagarri bat garatu ahal izateko. Hala, abeltzaintzako edo nekazaritzako ekoizpena jarduera nagusitzat izateaz gain, produktu horiek eraldatu eta merkaturatetik eratorritako balio erantsia gehitzen zaie.

Lege honen xedea da, halaber, abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiategien diru iturriak dibertsifikatzea, halako moduz non bertan arautzen diren jarduerak ustiategien errentak handitu eta sektorea bideragarriagoa egingen duten.

Lege honek ahalbidetuko du lehen sektoreak jarduera garrantzitsua izaten jarraitzea gure erkidegoan. Halaber, ahalbidetuko du jarduera horrek landa eremuko populazioaren sektore garrantzitsuen jarduera nagusi izaten jarraitzea, eta, ondorioz, jendea herrietan geratzea eta ingurumena zaintzea.”

Zioak: zuzenketak dakarren aldaketak hobetu egiten du lege proposamenerako helburuen betetzea, eta garatzen laguntzen du.

TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

25. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izenburua aldatzeko zuzenketa. Proposamenaren izenburuaren ordez honako hau jartzea proposatzen da:

Foru Legea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena.

Zioak: Artisautzaren kontzeptua berariaz arautzen du foru erkidegoko legediak. Kontzeptu hori ez da lege honen xedearekin bateraezina, baina, gure ustez, askoz ere argigarriagoa da eta arautu nahi denaren irudi zehatzagoa ematen da baldin eta izenburuan ezartzen bada ustiatzeiko salmenta zuzenaz ari dela, alde batera utzita produktu horiek landuak diren ala ez.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak, 2009ko abenduaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, alpatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritakoari jarraikiz, Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak arautu eta eratu ditzan, planaren 1.1.7. jardueran aurreikusitakoari jarraikiz.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa.*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Antzoki Sarearen webgune berriari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa.*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 15ean egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako arte eszenikoko konpainien eta taldeen behin betiko katalogo gaurkotuari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikei buruzkoa.*BERTAN BEHERA UTZITAKO GALDERA*

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, ikuskizun elebidunak sortzen direnean hizkuntza-aberastasuna sustatzeko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak

garatzen dituen politikei buruzkoa, bertan behera utzi izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian.

BERTAN BEHERA UTZITAKO GALDERA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko zertan geldituko den Artea eta Kultura izeneko programa 2010eko ekitaldian, bertan behera utzi izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa.

BERTAN BEHERA UTZITAKO GALDERA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko abenduaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, dantzaren mundua babeste aldera Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak garatzen dituen politikiei buruzkoa, bertan behera utzi izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lan-taldea, Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertzea.

OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Araubideko Batzordeak 2009ko abenduaren 17an onetsi zuen, Erregelamenduko 55.2 artikularekin bat, Nafarroako Arartekoaren egungo eginkizunak berraztertze aldera egin beharreko lege-aldaketak aztertze lan-talde bat sortzea, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu lan-taldearen osarari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondorkoa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2010eko otsailaren 4ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Foru Araubideko Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idaz-

ki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratu den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Azterlana prestatzeko epea 2010eko maiatzaren 31n bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2010. urterako ordutegi ofiziala.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

«Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala hartzearen ondorioetarako, lehendakaritza honek honakoa ERABAKI DU:

Lehena. Ezartzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2010. urterako ordutegi ofiziala 08:30etan hasi eta 14:30etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 28ko 951/2009 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jaiegunetan, bai eta uztailaren 6, 12, 13 eta 14an, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau igortzea Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari eta erakunde horretako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

